

KANALAK

Popgillusen, ideia bat dugu, oso erabilgarria iruditzen zaiguna: krispetak dituen ale bakoitzak lizunak dauden ohartarazi diezaguke, ikusi aurretik ere. Hori lortzen da sentsoare biologiko gisa jarduten duen estaldura jangarri baten bidez.

Alea berotzen denean, mikrouhin-labea edo zartagin batean izan, estaldurak *Aspergillus* onddoaren metabolitoak detektatzen ditu eta kolorez aldatzen du kutsadura badago. Horrela, berehala jakin dezakegu krispetak jateko seguruak diren ala ez, giza begiak detektatu aurretik ere.

Eta onena da guztiz seguru dela: estaldura elikagaietarako materialekin egin dago, hala nola gelek, proteinekin eta biopolimeroekin, eta % 100ean jangarria eta kontsumitzeko seguru da.

Popgillus aurkezteko, hainbat kanal erabiliko ditugu:

Webgunea: Hau izango da gure "egoitza nagusia". Bertan, jendeak ikus dezake nola funtzionatzen duen sentsoareak, zergatik den seguru eta nola laguntzen dien krispetak kezkarik gabe gozatzeko. Tonu formalagoa izango du eta gure xede-publikoarengana iritsi ahal izango da.

Instagram: Sentsoarearen argazkiak eta bideoak erakutsiko ditugu martxan, tutorial laburrak eta zientzia modu sinple eta bisualean azaltzen duten esperimenduak. Gainera, jendearekin elkarreragin ahal izango dugu Istorioen eta Bideoen bidez. Krispetetan lizunaren arazoari buruzko kontzientzia pizteko modu pertsonalagoa da hau.

TikTok: Hemen, ideia berrikuntza modu dibertigarri eta bizkorrean erakustea da, haziaren kolorea nola aldatzen den erakusten duten eta jakin-mina pizten duten bideo laburrekin. TikTok-ek sortzen duen dopamina-igoera ere aprobetxatzen dugu: erabiltzaileek eduki entretenigarri eta bisualki erakargarria ikustean sentitzen duten berehalako asebetetze sententzioa. Horri esker, gure enpresa aurkeztu eta kontzeptua ia berehala azaldu dezakegu, jendearen arreta bereganatuz beste zerbaitek distraitzen utzi aurretik.

Espazio fisikoak: Gure espazio fisikoetan, jendearekin harreman estua izatea dugu helburu. Sentsoare martxan ikustea, krispetak probatzea eta gurekin zuzenean hitz egitea nahi dugu. Horri esker, produktuak nola funtzionatzen duen hobeto azaldu, galderak berehala erantzun eta bezeroen lehen eskuko iritzia jaso dezakegu. Gainera, zuzeneko harremanak konfiantza sortzen laguntzen du.